

Usurbilgo Udala

## 2016KO APIRILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Garcia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko apirilaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

#### **1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:**

##### **\*2016KO OTSAILAREN 23KO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2016ko otsailaren 23ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

##### **\*2016KO MARTXOAREN 22KO EZOHIKO BILKURA.**



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, 2016ko martxoaren 22ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO MARTXOAREN 15ETIK APIRILAREN 15ERA (2016/0268-2016/0355)**

Alkatetzak 2016ko martxoaren 15etik apirilaren 15era bitartean (2016/0268–2016/0355) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINEKO ARAUDIKO 37., 53., ETA 54. ARTIKULUEN ALDAKETA PUNTUALA (01 ALDAKETA). BEHIN BETIKO ONESPENERAKO DOKUMENTU OSATUA ONARTZEA.**

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Hirigintza Batzordean diktaminatuta datorrela dio eta tramitazioaren azken puntuan aurkitzen direla. Zehaztu du hemen aipatzen den aldaketa 2014ko uztailaren 29ko plenoan onartu zela eta jendaurrean egon ondoren, Lurralde Antolamendurako Batzordera bidali zela, handik 2015eko ekainaren 17an udalari jakinarazi zitzaion ez zegoela eragozpenik aldaketa hau onartzeko. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapenerako departamenduak ohar bidez Udalari jakinarazi zion behin betikoz onartu aurretik aldaketa batzuk egin nahi zirela, gehienbat formari dagokiona, edukiari edo mamiari baino. Beraz, hemen jasotzen dena da Foru Aldundiak eskatzen dituen aldaketak onartzea.

Aipatzen diren hiru artikuluetatik bik, 37.k eta 53.k, estalkipeei eragiten diela esan du, estalkipeetan bizitoki baldintzak jartzeko arauak markatzen direla zehaztu du. 54. artikulua, berriz, nekazal ustiapenerako negutegiak arautzen dituela zehaztu du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Espediente zenbakia: HZ.01/2014-0279

## **AURREKARIAK**

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. Aldizkarian.

Usurbilgo udaleko gobernu taldeak Araudiaren 37., 53., eta 54. artikulua aldatu nahi ditu. Gauzak horrela, Ekhiñe Egiguren udal arkitektoak eta Nekane Azarola



Usurbilgo Udala

Martinez hirigintzako udal aholkulari juridikoak aipatu aldaketak barneratzen zituen Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntualaren (01 Aldaketa) dokumentua erredaktatu zuten.

## **ALDAKETAREN XEDEA**

Aurrekarietan azaldutakoa bateratuz eta jarraituz, Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspen Testu Bateginaren aldaketa honen helburua da araudiaren 37., 53. eta 54. artikulua aldatzea.

37. artikulua aldaketa Udalaren eskaerari erantzunaz idatzi da, izan ere, hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian egoitzazko eraikuntzetan estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea baitu helburua, horretarako beharrezkoak diren baldintzak zehaztuz. Egun indarrean diren arauak aukera hori espreski eraikinak kokatzen diren eremuko Plan Bereziatan (aintzinako herri-guneen kasuan) edota dagokion hirigintza fitxan (gainontzeko kasuetan) finkatzen denean soilik ahalbidetzen dute.

Horrekin batera, Udalaren eskaerari erantzunaz baita ere, behe solairuan aterpeak egikaritzeko debekua zehaztu da, bizitegi eraikuntzen behe solairuei atxikita erabilera publikodun eremu/kaleak barneratzen dituen aterpeak galaraziz. Egun indarrean diren arauak behe solairuetan aterpeak orokorki galarazten dituzte.

53. artikulua aldaketa Udalaren eskaerari erantzunaz idatzi da, 37. artikulua aldaketarekin batean, lurzoru ez urbanizagarrian egoitzazko eraikuntzetan estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea du helburu, horretarako baldintzak zehaztuz. Egun indarrean diren arauak estalkipean aprobetxamendu osagarriak baimentzen dituzte (B.2 puntuan) .

Azkenik, 54. artikulua aldaketa idatzi da Ingurumen Teknikariaren eskaeraren eta proposamenaren arabera, lurzoru ez urbanizagarrian negutegiak eraikitzeko xedapen partikularrak eskatu bezala egokituz. Egun indarrean diren arauetan negutegiak arautzen badira ere, Ingurumen Teknikariaren txostenean esaten denez; *“Gaur egun negutegientzako ezartzen diren baldintzak ia bete ezinak dira, izan ere, aisialdira mugatzen diren negutegiak izan behar dute (horren okupazio maila txikiarekin) eta aldi berean 2 Ha-ko lursailak izan behar dituzte.”*

## **ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA**

Aipatu dugun bezala, aldaketa honek Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 37, 53 eta 54. artikuluei eragiten die.

37 eta 53. artikuluentzat planteatzen den aldaketa, bizitegi erabilerako eraikuntzen estalkipean bizitegi erabilera baimentzea da, kontuan hartu gabe eraikina kokatzen den eremuaren sailkapena. Zentzu honetan, 37. artikulua orokorrean



Usurbilgo Udala

aplikatu beharreko eraikuntzen baldintzak xedatzen ditu, eta 53 artikuluko B.2 atalak, lurzoru urbanizaezinean kokatzen diren bizitegiako eraikuntzena.

Horretaz gain, Arau Subsidiarioen 54. artikulua, negutegiak xedatzen ditu. Udal ingurugiro teknikariak, araudi hori aplikatzeak, Usurbilgo udalerrian negutegiak jartzea ia galarazten duela ikusi duelarik.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.2.c artikuluari jarraiki, aurreikusten diren hirigintza-eraikigarritasuna, **erabilera berezia eta erabilera bateragarriak finkatzea**, hirigintzaren egiturazko antolamendu izaera edukiko dute.

Gainera, lurzoru urbanizaezinetako bizitegi erabilerako eraikinen eta negutegiaren erabilerak, zuzenean Arau Subsidiarioen arau orokorretan xedatzen dira, zehazki, Lurzoru Urbanizaezineko Araudia xedatzen duen 4.3. kapituluan.


Ondorioz, Euskal Lurzoruaren Legearen 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, hirigintzako egiturazko antolamendua, Hirigintza Antolatzeko plan orokorren bidez egingo da.

Kasu zehatz honetan, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketaren bidez.

Honek guztiak Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen 37, 53 y 54 artikuluen aldaketa espediente honen egokitasuna justifikatzen du.

### **ALDAKETAREN IZAPIDETZA**

- 2014ko uztailaren 29an, Plenoak, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, gehiengo osoz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntuala (01 Aldaketa) hasieraz onartzea eta hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen.
- Espedientea jendaurreko epealdian egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.
- 2015eko martxoaren 31en, Plenoak, gehiengo osoz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntuala (01 Aldaketa) behin behingoz onartzea eta espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igortzea erabaki zuen.
- Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, 2015eko ekainaren 17an egindako bilkuran zera erabaki zuen: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren testu Bateginerako Araudiko 37., 53., eta 54. artikuluen aldaketa puntuala” izeneko espedienteari eragozpenik ez jartzea.



Usurbilgo Udala

## **DOKUMENTU TEKNIKOAREN EGOKITZAPENA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Departamentuak, Diputatuen Kontseiluak aldaketa behin betikoz onartu aurretik 53. artikulua indarrean dagoen testuarekin osatzea proposatu du.

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntualaren (01 Aldaketa) behin betiko onespenerako dokumentua udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, egokitu dute.

Egokitzapenak ez dira sustantzialak edo esanguratsuak, izan ere dagoeneko indarrean dagoen araudiaren osatu baita aldaketa.

Hala ere, egokia ikusi da dokumentu osatua Diputaziora igorri aurretik, Plenoan onartzea.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2015eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Xabier Arregi eta Jone Urdampilletaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren abstentzioarekin, onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENENGO:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntualaren (01 Aldaketa) dokumentu osatua onartzea.

**BIGARRENA:** Behar bezala diligentziaz dokumentu osatuaren (2016 apirila) lau kopia, erabaki honekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea behin betikoz onar dezan.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

#### **4.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO S-4 (TXAGAÑETA) SEKTOREKO EZAUGARRI FITXAREN ALDAKETA PUNTUALA (10 ALDAKETA). BEHIN BETIKO ONESPENERAKO DOKUMENTU OSATUA ONARTZEA.**

Alkateak azalpenak eman ditu.



Usurbilgo Udala

Kasu honetan ere Arau Subsidiarioetako aldaketa bat planteatzen dela esan du, S-4 Txagañeta sektorekoa, hain zuzen ere.

Sektore honen aldaketa ere lehendik datorrela dio. Aldaketa honen motibazio nagusia dela dio Arauetan erabilera industrialerako jasota zegoela, baina jabeen arteko desadostasunek ezinezkoa egiten zutela horren garapena, izan ere batzuek landa erabilpenerako izatea nahi zuten eta beste batzuek erabilera industrialerako. Hori horrela, tarteko irtenbide bat hartu zela adierazi du, zati bat desklasifikatu egin da landa erabilpenerako utziz eta beste zati bat erabilera industrialerako utzi da. Erabaki horrek bere bidea egin duela aipatu du, tartean alegazioak izan ziren eta erantzun ziren, Eusko Jaurlaritzak onespena eman zuen eta, orain, Foru Aldunditik esan dute gauza batzuk hobeto jasotzea komeni dela. Beraz, gaur hemen onartzera doazena Foru Aldunditik esandakoak direla zehaztu du.

Josune Urkolak adierazi du beraiek abstenitu egingo direla. Batzordean aipatu zuten bezala, aspalditik datorren gai bat da eta kokatu ahal izateko dokumentazioa eskatu zuten, baina ez dutenez jaso abstenitu egingo direla esan du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honela dio:

“Espediente zenbakia: HZ.01/2011-0213

## **AURREKARIAK**

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. aldizkarian.

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreari dagokionez, bere ezaugarrien fitxak honela dio hitzez hitz:

### 1- JARDUKETAIRIZPIDE ETA HELBURUAK

Industri zonalde misto bat sortzea nekazaritza eta arrantzatik eratorriak eta bere lehen eraldaketan ustiapenen zabalpena bertan lagundu dezan.

Garapenezko planeamenduak ibarreko ezaugarri naturalak kontenplatu beharko ditu eta industri ezarpenaren beharra dauden jardueren zabalkuntza eta hobekuntza justifikatu beharko du, egungoetan sorrera ez duten beste jarduera berririk ezarriko duen inongo garapenezko planeamendurik ez dela onetsia izango.

### 2- AZALERAK

Sektorearen azalera: 14.115 m<sup>2</sup>  
Sestra gaineko eraikuntzak okupaturiko azalera: 2.823 m<sup>2</sup>

### 3- ERABILERAK

Erabilera industrialia izango da, elikagai motako tradizionala, nekazaritza edo arrantzatik eratorriak eta bere lehen eraldaketak.

Isurkinen arazketa beharrik ez duten lantegi txiki eta industria txikia onartuko da.

Sestra gainean eraikitako azalera: 5.646 m<sup>2</sup>

### 4- ZUZKIDURAK

Aparkaleku plazak azalean: 57 UN

### 5- LAGAPENAK

Bidesare, espazio libre eta giza eta interes publiko duten zerbitzutara destinaturiko lurrago dira.



Usurbilgo Udala

#### 6- ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK

Eraikuntzen baldintzak Plan Partzialak ezarriko ditu, honek bereziki erriberaren ingurugiroko babeserako beharrezkoak diren parametroak jaso beharko dituelarik, bere hobekuntzarako esku hartze eginkorraren prozedurak jasorik.

Eraikuntzaren gehieneko altuera 7'5 mkoa izango da. Altuera haundiagoa beharrezkoa balitz, garatzen den ihardueraren ezaugarriengatik berariazko justifikapena beharrezkoa izango da bere onespenerako.

#### 7- ANTOLAMENDUA

Sektore honetarako ezaugarrien fitxen plano gainjarrian izendatutako eraikuntzak ordenazioz kanpokotzat hartzen dira, eta orokorki Sektorea zuzenki ordenatzeko eta urbanizatzeko galarazten duten eraikuntza, eranskin eta txabola guztiak, erreferentzi kartografiko ezagatik, planoetan jaso gaberik ere.

Arau Subsidiario hauetako planoetan isladatutako ordenazio xehakaturia orientagarria da soilik.

Behin betiko ordenazioa eta gainontzeko xedapenak Plan Partzialak ezarriko ditu.

Eraikuntzaren gutxieneko atzerapena errepidearen ezpondaren kanpoko lerro edo ertzetik, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzen duen ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretuak ezartzen duena errespetatu beharko du.

Eraikuntzek gutxieneko 20 mko atzerapena errespetatu beharko dute Sektorearen mugetatik.

#### 8- JARDUKETA

Urbanizatzeko Jarduketa-Programak Jarduketa sistema ezarriko du.

#### 9- KUDEAKETA

Kudeaketa Urbanizatzeko Jarduketa-Programan xedatutako aukeratutako sistemaren arabera.

#### 10-PLANEAMENDU OSAGARRIA

Plan Partzial bat, Urbanizatzeko Jarduketa-Programa bat eta Urbanizazio Proiektu bat izapidetu beharko da Sektore osorako.

#### 11- LURZORUAREN JABETZA

Erabilera eta jabari publikorako destinaturiko azalera Udalarri lagako zaio urbanizatu ondoren.


Sektore hau hiru jabeen esku dago: Foru Aldundia, Pescados y Mariscos Atxega S.A, eta Lertxundi eta Izarraitz baserrietako jabeak, jarduketa sistema hitzarmen-sistema izanik.

### **ALDAKETA PUNTUALA**

Udal gobernu taldearen iritzia ezagutu ondoren, udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualaren dokumentua prestatu zuten.

### **ALDAKETAREN IZAPIDETZA**

- Alkateak, 2012ko ekainaren 5ean emandako 2012/0531 Dekretuaren bidez, Hiri Antolamenduko AASSetako S-4 Txagañeta Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntualaren Aurrerapena bi hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen (2012ko ekainaren 12ko GAO).
- Alkatearen 2012/0908 Dekretu bidez, Nekane Azarola abokatuak, ARAUDI, S.L.ko hirigintza aholkulariak 2012ko irailaren 12an izenpetutako txostena aintzat harturik, izandako erreklamazioak erantzun ziren eta hogeitaz hamar eguneko epea eman zitzaion iradokizun edo erreklamazioak tartekatu zituztenei sektorearen garapena, karobiaren babesarekin bateragarria den eta hirigintza legediak ezarritako zehaztapen eta estandarrak betetzen dituen ordenazio proposamen bat aurkezteko.



Usurbilgo Udala

- 2013ko urriaren 29an, Plenoak Hiri Antolamenduko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualari hasierako onespenera ematea eta berau jendaurrean jartzea erabaki zuen.
- Espedientea jendaurreko epealdian egon zen bitartean, bi alegazio aurkeztu ziren.
- 2014ko otsailaren 25ean, Plenoak, gehiengo osoz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualaren hasierako onspenerako dokumentuari aurkezturiko alegazioak honelaxe erantzutea, aldaketa puntualari behin behingo onartzea eta espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igortzea erabaki zuen.
- Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, 2015eko ekainaren 17an egindako bilkuran zera erabaki zuen: Aldeko txostena ematea Usurbilgo S-4 Sektoreari dagokion Arau Subsidiarioen aldaketaren espedienteari dagokionez.

## **DOKUMENTU TEKNIKOAREN EGOKITZAPENA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluak aldaketa behin betikoz onartu aurretik aldaketarako dokumentua osatzea proposatu du.

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntualaren (01 Aldaketa) behin betiko onspenerako dokumentua udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, egokitu dute. Hirigintza fitxa eta antolamendu xehatuaren hiru plano (kalifikazio-plano xehatua, lurzoruaren eraikitze eta jabetza plana, lerrokadura eta sestren plana) egokitu dira.

Egokitzapenak ez dira sustantzialak edo esanguratsuak.

Hala ere, egokia ikusi da dokumentu osatua Diputaziora igorri aurretik, Plenoan onartzea.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2015eko apirilaren 14an egindako bilkuran, Xabier Arregi eta Jone Urdanpilletaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren abstentzioarekin, onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengo osoz:

## **ERABAKIA**

**LEHENENGO:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 (Txagañeta) Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10 Aldaketa) Puntualaren dokumentu osatua onartzea.





Usurbilgo Udala

**BIGARRENA:** Behar bezala diligentziatutako dokumentu osatuaren (2016 apirila) lau kopia, erabaki honekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea behin betikoz onar dezan.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengo osoz hartu da.

#### **5.- 2016/0285 DEKRETUA BERRESTEA: SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAK 2016-01-26AN HARTURIKO ERABAKIA (UDALEN EKARPENAK ZEHAZTEN DITUEN ATALA) AUZIBIDERA.**

Alkateak azalpenak eman ditu.

Adierazi du San Markoko aurrekontuak eta, konkretuki, San Markoko aurrekontuen udalen ekarpeneko atala, auzi-iturri izan dela aurreko bi urtetan ere.

Aurrenekoz, 2014ko aurrekontuak eraman zirela auzibidera aipatu du, eta horren arrazoia izan zen Usurbilgo Udalak kontsideratzen duela Usurbilgo Udalarari egin arazten zaizkion ekarpenak ez datozela bat Udal honek Mankomunitateetik jasotzen dituen zerbitzuekin. Udalek hondakinen bilketarako eredu desberdinak jarraitzen dituzte, baina San Marko Mankomunitatea egokitua dago bilketa modu bati, edukiontzietan egokitutako bilketa sistemari. Ondorioz, gertatzen dena da Udal honek bere gain hartu behar izan dituela Atez ateko bilketak dakartzan gastuak eta kudeaketa, baina San Mankomunitateak ez duenez beste udalen bilketa gure ekarpenetatik aparte uzten, orduan, gainera ordainarazten dizkigu beste udalek beren bilketarako erabiltzen dituzten, adibidez, edukiontziak.

Erabat bidegabea dela iruditzen zaio.

Azken batean, Usurbilgo Udala Mankomunitateko parte da, azpiegitura eta zerbitzu batzuk jasotzen ditu, beraz, zilegi da ordain araztea eta ekarpenak egin araztea erabiltzen dituen azpiegitura eta zerbitzuengatik, ez ordea, erabiltzen ez dituen azpiegitura eta zerbitzuengatik.

Esan bezala, 2014ko aurrekontuak epaitegira eraman ziren eta Bizkaiko Auzitegiak Udalaren aldeko sententzia eman zuen. Ondoren, San Marko Mankomunitateak eta hainbat Udalek epaia errekurritu zuten eta orain Epaitegi Gorenean dago azken epaiaren zain.



Usurbilgo Udala

Amaitzeko azpimarratu du epaitegietara jo aurretik adostasunetara iristen saiatu direla, iruditzen baitzaie askoz ere irtenbide zentzuzkoagoa izango litzatekeela.

Andoni Atxegak adierazi du aurkako bozka emango dutela, izan ere bideak jorratu dira bai baina bide horretatik jarraitu behar dela iruditzen zaie, auzitegietara jo gabe. Politikoen lana dela dio gauzak konpontzea eta ez gauzak auzitara eramatea.

Gaineratu du gainkostu bat daukalako ari bagara borrokan, beste gainkostu bat gehitzea ez zaiela zilegi iruditzen.

Alkateak erantzun dio arrazoia duela horretan, baina egia dela ere bi ez direla konpontzen batek ez badu nahi.

Kasu honetan oraindik ez dagoela behin betiko ebazpenik, baina momentuz dagoen bakarra dela dio Udalari arrazoia ematen diona.

Mankomunitatearen jarrera malguagoa espero zutela adierazi du.

Gainera, Mankomunitateak gu guztiok ordezkutzen gaituela azaldu du, ez dela aparteko ente bat eta alde horretatik Mankomunitateak hain modu nabarmenean auzi honetan postura baten alde egitea hori ere ez dela zilegi azpimarratu du. Jarrera hori okerra eta onartezina dela uste du.

Batzarkideek, San Marko Mankomunitateko Batzarrak 2016-01-26an harturiko erabakia (Udalen ekarpenak zehazten dituen atala) auzibidera eramateko 2016ko martxoaren 22an hartutako 2016/0285 dekretua gehiengoz berretsi dute.

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

**6.- 2016/0286 DEKRETUA BERRESTEA: SAN MARKO MANKOMUNITATEKO 2016KO AURREKONTUEN BEHIN BETIKO ONESPENA AUZIBIDERA.**



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, San Marko Mankomunitateko 2016ko aurrekontuen behin betiko onespena auzibidera eramateko 2016ko martxoaren 22an hartutako 2016/0285 dekretua gehiengoz berretsi dute.

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

## **7.- BERRI EMATEA: 2016/90001 KREDITU TXERTAKUNTZAREN ALDAKETA DELA ETA, UDALAK GASTUAREN ARAUA EZ DU BETETZEN.**

Alaitz Aizpuruak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Batzordean honen berri eman zela esan du. Bertan, kokatze aldera, 2015eko likidazioaren berri eman zela esan du, honen ondoren 2015eko aurrekontuko inkorporazioak onartzen baitziren. Egiten diren txertakuntzek arau batzuk bete behar izaten dituztela esan du, kasu honetan, aurrekontu egonkortasuna, finantza iraunkortasuna eta gastu araua.

Aurrera egin aurretik adierazi du likidazioa positiboa izan zela, txertakuntza egiteko gerakina erabiltzen dela eta bukaeran geratzen den kreditu erabilgarria ere 700.000 eurokoa dela. Halaber, gaineratu du diru erreserba egiten dutela fondo foralaren gehikuntzako kopuruarekin eta baita kupoaren gaiarekin ordaintzera tokatuko balitzaie ere.

Usurbilgo Udalaren egoera ekonomikoa ona dela adierazi du.

Hau esanda, txertakuntza honek egonkortasunaren legea betetzen duela adierazi du. 2016ko aurrekontuak, kreditu aldaketa kontutan izanda, 98.000 euroko superabita baitu, helburua superabita 0 zenean.

Finantzen iraunkortasunari dagokionean, 2016ko abenduaren 31ean Udalak izango duen zor bizia 1.156.000 eurokoa da eta 2015ean sarrera arruntak 10.154.000 eurokoak izan zirela kontutan hartuta, hauen %11,39a. 2016an jarritako helburua %80a baino txikiagoa izatea da, beraz, finantzen iraunkortasuna betetzen da.

Gastuaren arauan gastu konputagarrien bariazioa neurtzen dela esan du, eta 2015 eta 2016 ekitaldien arteko gastu konputagarrien bariazioa %6,65koa dela. Gehienez ordea %1,8koa izan beharko luke eta ikusi den bezala kasu honetan hori ez da betetzen.



Usurbilgo Udala

Hau guztia horrela, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzeak suposatuko luke plan ekonomiko-finantziero bat egitea, baina foru arauaren baitan arau hau betetzen ez baldin bada baina gerakinarekin finantziatzen baldin bada, plan ekonomiko-finantzieroa egin gabe Udalbatzarrean berri eman eta horretan geratuko litzateke. Hori dela dio udalbatza honetan horren berri ematearen arrazoia.

Honela dio Kontu-hartzailearen txostena jasotzen duen Ogasun batzordeko irizpenak:

“2016ko apirilaren 1ean, kontu-hartzaileak ondorengo txostena burutu zuen, 2016ko 90001 kreditu espedienteari buruz, egonkortasun helburua, iraunkortasun helburua eta gastu erregela aztertuz:

### **AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

1. 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
2. 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
3. Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2016rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea.

**AZTERTUTAKO TRAMITEA:** 2016. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketa (2016/90001 kreditu txertaketa).

#### **1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)**


**1.1- ENTITATEA:**Usurbilgo Udala

#### **1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA**

##### **Aurrekontuen egonkortasuna**

2016. urteko aurrekontuak, aipatutako kreditu aldaketa kontutan izanik, **98.464,22** euroko **superabita** du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da.

2016rako ezarritako helburua defizit zero izatea da.



Usurbilgo Udala

Hori dela eta, 2016. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketa honen onarpen espedienteak aurrekontu egonkortasunaren 2016rako helburua **betetzen** du.

### Finantzen iraunkortasuna

2016ko abenduaren 31n, Usurbilgo Udalaren zor bizia (1.156.474,88), guztira, 2015ean likidatutako sarrera arrunten (10.154.432,49) **%11,39** da. Kalkulua egiteko, 2016ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean izango diren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak.

2016rako ezarritako helburua magnitude hori %80 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2016. urteko aurrekontuaren kreditu aldaketa honen onarpen espedienteak finantza iraunkortasunaren helburua **betetzen** du.

### Gastuaren araua

2015eko eta 2016ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa **%6,65** da.

Aurreko kalkulua ondoko taulan xehatzen den moduan egin da:

		<u>Aurrekontua-1</u>	
a1	2015eko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	2015 G 1/7 O fasean	9.279.997
a2	SEC doiketak	0	0
a3	2015eko interesak	2015 III Kap O fasean	16.893
a4	Finantzaketa lotua duen gastua 2015ean	(*)	1.001.045
a5	Araudian eta kudeaketan egindako aldaketen eragina		0
<b>a=a1+a2-a3-a4-a5</b>		<b>2015eko gastu konputagarria</b>	<b>8.262.059</b>
		<u>Aurrekontua</u>	
b1	2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	2016 G 1/7 O fasean	10.384.006
b2	SEC doiketak	0	0
b3	2016ko interesak	2016 G III Kap O fasean	30.000
b4	Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	(*)	738.115
b5	Araudian eta kudeaketan	0	



Usurbilgo Udala

	egindako aldaketen eragina		
b6	Gastu exekuzioaren doikuntza (IGA Eren 2/2012 legeak 12. artikuluan araututako gastu erregela ezartzeko gida, 1.13 atala)	(*)	0,92
<b>b=b1+b2-b3-b4-b5</b>		<b>2016ko gastu konputagarria</b>	<b>8.811.549</b>
$c=(b/a-1)*100$		<b>Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan)</b>	<b>6,65</b>

2016rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa %1,8 baino txikiagoa izatea da. Beraz, **ez du arau hau betetzen.**

### 1.3.- ONDORIOAK

2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena:

5.3 artikulua: “Bestetik, **aurrekontu egonkortasuneko helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatzen bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztan, entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helaraziko beharko zaio**, zirkunstantzia hori adierazita, Kontu-hartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera”.

Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2016rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea:

3. erregela. Gastuaren araua:

“1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da 2015eko eta 2016ko urteen artean gastu konputagarriaren bariazioa %1,8 baino handiagoa ez izatea.

(...)

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, **arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada**, planaren ordeztan, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hirugarren paragrafoan aurreikusitako **komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari**”.

Horrela beraz, Ogasun Batzordea osatzen dutenak, Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin eta



Usurbilgo Udala

Josune Urkolaren abstentzioarekin, Udalbatza Osoari proposatu diote gehiengoaren aldeko iritziarekin:

Udalbatzarrari berri ematea: 2016/90001 kreditu txertakuntzaren aldaketa dela eta, Udalak ez duela betetzen gastuaren araua, kontu-hartzailearen txostenean jasotakoaren arabera.”

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira 2016/90001 kreditu txertakuntzaren aldaketa dela eta, Udalak gastuaren araua ez duela betetzen.

## **8.- MOZIOA: ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKIA LEGEZ OKUPATZEKO AUKERA IZATEKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOARI ETA ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO EKONOMIKO BERRIARI BURUZKO ARAUZKO GARAPENA.**

Fermin Orue-Echevarriak mozioak jasotzen dituen bi puntuak irakurri ditu.

EAJ-PNVk aurkeztutako testua irakurri duela eta bata bestearengandik urruti xamar daudela uste du eta bat egiteko modurik ez duela ikusten esan du.


Josune Urkolak adierazi du mozio honekin abstenitu egingo direla. EAJk osoko zuzenketa bat aurkeztu zuen Legebiltzarrean gai honi buruz aurkeztu zena eta testu horretan jasotzen da Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen diola lege berri egin dezala, egun indarrean dagoen legediaren aldaketak jasoko dituen. Mozio honetan, aldiz, hori ez dela jasotzen zehaztu du eta abstenitu egingo direla.

PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozioa Antolakuntza Batzordean eztabaidatu zen eta Udalbatzarrak gehiengoz onartu du. Honela dio onartutako testuak:

### **“JUSTIFIKAZIOA**

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko aukera izateko eskubide subjektiboa aitortzen da (7., 8. eta 9. art.), eta eskubide hau betetzea Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza arloko sail eskudunaren aurrean erreklamatu ahal izango dela, eta administrazio honen ebazpenen aurkako administrazioarekiko auzi jurisdikzioaren aurrean errekurtsioa aurkez daitekeela finkatzen da (6. art.).

Halaber, Legean honakoa adierazten da: etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubidea betetzeko, euskal administrazio publiko eskudunek alokairuan eskura jarriko dituzte etxebizitza babestuak, edo bizitoki babestuak lagako dituzte, edo baita etxebizitza libre bat ere baldin eta erabilgarri badago bitartekaritza-programaren baten edo antzekoen bitartez, eta kasu bakoitzean dagokion errentarekin edo kanonarekin. Eta etxebizitzarik edo bizilekurik ezin bada eskaini, prestazio ekonomikoko sistema bat ezarriz erantzun ahal izango zaio eskaera horri.



Usurbilgo Udala

Legearen Laugarren xedapen iragankorrean, etxebizitza duin eta egoki bat edukitzeko eskubide subjektiboa finkatzeko eta pixkanaka aplikatzeko behin-behineko araubide juridikoa finkatzen da, eta hitzez hitz, honakoa adierazten da:

**“Harik eta argitaratzen diren arte lege honen 9. artikuluan** –etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa betetzeko moduei eta exijitzeko baldintzei buruzkoan– **aurreikusita dauden erregelamendu-xedapenak**, lege-arau hau indarrean sartzen denetik aurrera egoera hauei egin beharko zaie aurre gradualki:

- a) Lege hau indarrean sartzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita lehenengo urte naturalean, hiru kide edo gehiagoko bizikidetzta-unitateek izango dute eskubidea, baldin eta urtean 15.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak badituzte eta dagokion erregistro ofizialean gutxienez lau urte badaramatzate izena emanda alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa.
- b) Lege hau indarrean sartu ondorengo bigarren urte naturalean, aurreko idatz-zatian aurreikusitakoek ez ezik, bi kideko bizikidetzta-unitateek ere izango dute eskubidea, baldin eta urtean 12.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak badituzte eta dagokion erregistro ofizialean gutxienez lau urte badaramatzate izena emanda alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa.
- c) Lege hau indarrean sartu eta hirugarren urte naturaletik aurrera, xedapen honetako aurreko bi idatz-zatietan aurreikusitakoek ez ezik, kide bakarreko bizikidetzta-unitateek ere izango dute eskubidea, baldin eta urtean 9.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak badituzte eta dagokion erregistro ofizialean gutxienez lau urte badaramatzate izena emanda alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa.”

Etxebizitzaren Prestazio Osagarriari dagokionean, etxebizitzaren prestazio osagarriaren urtarilaren 12ko 2/2010 Dekretuan, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2016ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legean argi adierazten da Etxebizitzaren Prestazio Osagarria etxebizitzako politika publikotan beste marko integral bat eduki arte aldi baterako legezko tresna gisa konfiguratu zela. Prestazio horrek egiturazko arazo bati behin-behineko erantzun partziala ematen zion, etxebizitzaren inguruko politika publikoaren esparruan, kolektibo ahulenei eta kaltetuenei etxebizitza eskuratzeko beharrari erantzungo dieten antzeko neurriak edo beste mota batekoak egiten ez ziren bitartean. Eta esparru hori, 3/2015 Legeak modu integralean eskaintzen du. Ardatz nagusia funtzio soziala duen Lege honek etxebizitzaren inguruko politikak garatzeko esparru eskaintzeaz gain, etxebizitza edukitzeko eskubide subjektiboa gauzatzeko moduak garatzeko aukera eskaintzen du.

Egiaz Lege honetan bertan hiru urteko epean etxebizitza edukitzeko eskubide subjektiboa nork izan dezakeen zehazteko araubide iragankor bat finkatzen da, baldin eta eskubide subjektiboaren gainean lege horren II. kapitulua garatuko duen erregelamenduzko erregulazioa egiten ez bada. Era berean, aurrekontuen legeak Etxebizitzaren Prestazio Osagarriaren eta Etxebizitza Legeak aitortutako eskubideen arteko lotura –hau ere iragankorra– finkatzen du.

Egoera iragankor honek desagertu egin behar du Eusko Jaurlaritzak araudia garatzeko duen erantzukizuna bere gain hartuta. Araudi horretan, alde batetik, etxebizitza duin





Usurbilgo Udala

eta egoki bat legez okupatzeko Eskubide Subjektiboari lotutako baldintzak eta betebeharrak eta, bestetik, prestazio ekonomikoen sistema bat modu subsidiarioan ezartzea finkatuko dira.

Urtarrilean, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Irekian Dekretu-zirriborro baten inguruan eztabaida publikoa egiteko aukera eman zuen. Gaur egun Dekretu horrek plataforma horretan egon beharko luke deliberamendu-fasean, baina ez dago. Euskal sozialisten iritziz, Dekretu horrek pertsonen eskubideen murrizketa argia erakusten du, zaugarritasun bereziko egoerei erantzuteko etxebizitzaren prestazio osagarriaren erregulazioak jasotzen zituen hainbat aurreikuspen eta salbuespen biltzen ez dituelako.

Legebiltzarrean Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak Taldeak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarria bereiztea defendatu du. Euskal Sozialistak Taldearen iritziz azken hori gainerako etxebizitza-politikekin lotu beharko litzateke eta, beraz, gai honetan eskuduntza duen Sailak kudeatu beharko luke.

Baina bereizte hau ez da jada badauden eskubideak murrizteko aprobetxatu behar, Euskadin dagoen eredu soziala hobetzeko eta finkatzeko baizik.

Horregatik, aurretik azaldutakoa kontuan hartuz, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako erabakiak hartu ditu:

1. Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari honakoa eskatzen dio: Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen arauzko garapenak, oso-osorik, Legearen espiritura errespetatuko duela ziurta dezan, hau da, etxebizitza bat eskuratzeko behar diren baliabide ekonomikoak ez dituzten pertsonen etxebizitza duin eta egokia modu egonkorrean legez okupatzeko eskubidea bermatzea, eta bestela prestazio ekonomikoak eskaintzea.
2. Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari honakoa eskatzen dio: 9/2015 Aurrekontu Legeak zein Etxebizitzaren 3/2015 Legean aurreikusitako arauzko garapenak – prestazio ekonomikoko modalitatean etxebizitza duinerako eskubide subjektiboa betetzeari dagokionean– inolako murrizketarik eragin ez dezatela, ez baldintzetan ezta zenbatekoetan ere, Etxebizitzaren Prestazio Osagarriko gaur egun araututa dagoenaren inguruan; eta edozein kasutan, hura garatuko duen Dekretua, Etxebizitzaren Lege berriaren zentzuaren eta literaltasunaren arabera zabaldu dadin eskatzen dio.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.

## **9.- MOZIOA: EUOPAR BATASUNeko ESTATU ETA GOBERNU BURUEK TURKIAREKIN IZENPETUTAKO AURREAKORDIOAREN INGURUKOA.**

Fermin Orue-Echevarriak mozioaren hiru puntuak irakurri ditu.

PSE-EE udal taldeak aurkeztu eta Antolakuntza Batzordean eztabaidatu zen mozioa aztertu dute batzarkideek eta aho batez onartu dute. Honela dio testuak:


### **“Arrazoen azalpena:**

Martxoaren 8an, asteartea, Europar Batasuneko Estatu eta Gobernu Buruek aurreakordioa lortu zuten Europar Batasunera Turkiatik barrena heltzen ziren migratzaile guztiak –baita Siriatik eta beste edozein herrialdeetatik etorrita asiloa eskatu duten pertsonak ere– Turkiara deportatzeko programa abian jartzeko. Horren truke, Turkian jada finkatuta dauden beste hainbeste errefuxiatu Batasuneko Estatuak beste leku batera bidali beharko dituzte, estatu turkiarraren aldeko beste hainbat neurri ekonomiko eta politikoez gain.

Itun hori berretsiz gero, Europar Batasunak asiloaren inguruko nazioarteko zuzenbideari buruzko nazioarteko hitzarmenak urratuko lituzke. Eta gainera, Europar Batasuna desagiteko prozesuaren aurrean egongo ginateke. Ez dugu Europa hau onartzen, eta gure ustez Turkiarekin ezin da interes-akordio bat lortu errefuxiatuen eta migratzaileen eskubideak trukean erabiliz. Onartezina iruditzen zaigu.

Bigarren Mundu Gerraz geroztik bizi izan dugun krisi larriena den honen aurrean, Europar Batasuneko Estatu eta Gobernu Buruek aurreakordio immorala eta ez oso legezkoa sinatu dute. Izan ere, hedabideetatik bildutako informazioak baieztatuz gero, aurreakordio hori asilo-eskubidearen eta giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen askoren aurka doa.

Udalbatzar honek bere atxikimendua adierazten du gobernuz kanpoko erakundeen, lheslariantzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren eta giza eskubideen aldeko aktibisten eskaerarekin. Bertan, errefuxiatu andanak itzultzeko Europar Batasunak eta Turkiak lortutako aurreakordioa salatu eta erretiratzeko eskatzen da. Gainera, errefuxiatuen krisiari berehala irtenbidea ematea eskatzen da giza eskubideak defendatuz, korridore humanitarioak sortuz, haiek errespetuz eta elkertasunez hartuz, eta Europar Batasuneko kideen artean asiloa lortzeko aukera emanez.



Usurbilgo Udala

### **Hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzar honek aho batez erabaki du:**

1.- Europar Batasunera heltzen diren migratzaile guztiak –baita Siriatik eta beste edozein herrialdeetatik etorrira asiloa eskatu duten pertsonak ere– Turkiara itzultzea jasotzen duen Europar Batasuneko Estatu eta Gobernu Buruek eta Turkiak lortutako akordioaren aurka dago Udalbatza.

2.- Pertsona errefuxiatuek bizi duten egoera larriaren aurrean, giza eskubideak eta asiloko nazioarteko eskubidea errespetatuko duen premiazko erantzun humanitarioa emateko eskatzen die Udalbatzak Europar Batasunari eta Estatu kideei. Horren haritik, Europar Batasunak sinatutako giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenak edo asiloko nazioarteko zuzenbidea errespetatuko ez dituen edozein akordio, itun, hitzarmen edo ekintza-proposamen erretira dezaten eskatzen die Europar Batasuneko Gobernuari eta Estatu kideei.

3.- Udalbatzak bat egiten du Europa osoko erakunde sozial, sindikatu eta alderdi politiko askok sinatutako “Pasabide Segurua” adierazpenarekin. Eta horren ildotik, pasabide humanitarioak sortzeko agindu dezaten, eta errespetuan oinarrituz, pertsona horiei Europar Batasuneko 28 Estatu kideen artean asiloa eman diezaieten eskatzen die Europar Batasunari eta bere Estatu kideei.”

Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

### **10.- MOZIOA: ERRAUSTEGIAREN ERAIKUNTZA DELA ETA.**

Alkateak mozioari buruzko azalpenak eman ditu.

Momentu honetan Usurbilen herritar askoren ahotan dabilen gaia dela dio. Neurri batean Gipuzkoan ere bai, baina bereziki erraustegia eraiki nahi den inguru honetan. Horren adierazlea dela dio herri galdeketa egitea eskatuz Udalean 1.200 sinadura jaso izana.

EH Bilduk kezka sozial horri bide ematea nahi izan duela adierazi du.



Usurbilgo Udala

EH Bilduren iritzian erraustegiaren aurka egoteko arrazoi asko daude eta zaila da denak zerrendatzea, gaineratu du aurreko Antolakuntza Batzordean honi buruz luze eta zabal hitz egin zutela. Hala ere, arrazoi batzuk aipatu nahi dituela esan du.

Erraustegia azpiegitura arriskutsua dela adierazi du eta kalte nabarmena egiten diola osasunari eta ingurumenari. Batzordean egon zen eztabaidan ikusi zela dio bestek hori ez dutela garbi ikusten baina zenbat eta gehiago irakurri, jakin edo aztertzen den gaia, orduan eta ebidentzia gehiago ateratzen direla dio esaten ari direnaz.

Adierazi du Gipuzkoako mediku talde bat ari dela momentu honetan mezu bati zabalkundea ematen. Hauek esaten dutena da nazioarteko hainbat ikerketa, txosten eta azterketa epidemiologiko aztertu dituztela eta mezu garbi bat ematen digute, hau da, erraustegiak sortzen dituzten sustantziak, bai airetik eta hor sortzen diren zepa, hautsak etab., gaixotasun iturri direla eta gaixotasunak areagotzen dituztela 10 km.ko erradioan. Gaixotasunen artean minbizia, malformazioak, abortuak aipatzen dituztela gaineratu du. Azkenean aipatzen dutena da ere hori frogatzen duten txostenak ez direla auzitan jarri eta ikerlaririk ez dela ausartu hori ukatzera.

Bestetik, Madrilan ikusi dutela dio Valdemingómez-ko erraustegiaren ondoko herri bateko 36 gaixok gai hau auzitegira eraman dutela eta tramitera onartua izan dela. Beraz, horrek ere zerbait esan nahi duela beraien ustez adierazi du.

Halaber, orain gutxi irakurri ahal izan dutela aipatu du nola Anberesen leherketa haundi bat gertatu dela.

Bestalde, momentu honetan erraustegia egiteko planteatu den finantziazio bidea toxikoa dela uste dute, gipuzkoarrok behartzen baigaitu 35 urtetan gure sosen bidez enpresa pribatuak finantzatzera edo dirua ematera hori martxan egon dadin. Gainera kontrol publikoa auzitan jarrita, azken batean hitzarmen horrek enpresen esku uzten duelako bai eraikuntza eta baita horren kudeaketa ere.

Aipatutakoarekin lotuta, San Marko eta GHKren jokabidearekin ikusten dutela esan du biltze edo birziklatze lanak ondo egiten ditugunoi ere berdin berdin ordainarazten digutela erraustegia, nahiz eta guk sortzen ditugun gaiak nekez erre daitezkeen.

Hirugarrenik, erraustegia planteatzea ardatz gisa hondakin kudeaketan atzerapauso nabarmena dela azpimarratu du, izan ere momentu honetan Gipuzkoako herri askotan oso hondakin politika aurreratua egiten ari da. Europako direktibak kontutan hartuta, zeinak esaten duten epe ez hain luzean, 2020 aipatzen da, birziklagarriak diren hondakinak ezingo direla erraustu. Era berean, badakitela dio Europako direktibak zenbateraino ez diren lotesleak, hau da, Estatuak zenbaterainoko indarra duten hor aipatzen diren gomendio edo direktibak ez betetzeko, baina beraiantzat oso esanguratsua dela dio momentu honetan Europatik hori esatea.

2016an Gipuzkoan herri askotan egiten ari den lana kontutan hartuta, erraustegi berri bat planteatzea atzerapauso handi bat dela uste du.



Usurbilgo Udala

Pasa den astean Usurbilen bisitan izan zela aipatu du Europako Ingurumen bulegoko hondakinen arduraduna eta honek garbi esan zuela aipatu du erraustegia ez dela ideia ona.

Gehitu du erraustegia etxe ondoan egiteak gure kontzientzia etikoari min eta irain egiten diola, zeren gu garela dio birziklatze eta bilketa selektiboan herri eredugarria.

Hauek denak esan eta gero galdetu duena da, guk zer uste dugu erraustegia beharrezkoa dela? Beste aukerarik ez dago?

Gipuzkoako herri askok egiten duguna estrapolatuko bagenu Gipuzkoa osora, eztabaida bukatuta legokeela, erantzun bakarra izango luketela esan du "ez da beharrezkoa".

Garbi dutela dio zero zabor politikaren aldetik jo behar dela, gainera denbora gutxian emaitza onak lor daitezkeela dio eta Gipuzkoak ez lukeela erraustegirik behar.

Hau guztia esanda, gonbidapena luzatu die beste alderdiei, hain zuzen ere, bide honetan elkarrekin joatea. Ikusita herrian ze kezka dagoen gai honek herri erantzuna eskatzen duela adierazi du.

Jarraian, mozioaren bi puntuak irakurri ditu.

Gainontzeko batzarkideei hitza eman die.

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du beraien bozka abstentzioa izango dela. Antolakuntza Batzordean luze eta zabal jardun zutela gai honi buruz eta orain ez duela berriz errepikatuko esan du.

Fermin Orue-Echevarriak ere adierazi du abstenitu egingo dela. Gaineratu du Antolakuntza Batzordean bertan alkateak eman zion txostena diputatuari igorri ziola eta esan diotenez laster hasiko omen dira gai honi buruzko azalpenak ondo ematen Gipuzkoa mailan jendeak jakin dezan.

Mozio honetan bi gauza eskatzen direla zehaztu du, batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen zaio erraustegia gelditzea. Era berean, otsaileko plenoan onartu zela dio herrian kontsulta egitea. Hau horrela, ez al zen logikoagoa izango dio lehenengo kontsulta egitea eta behin emaitza ikusita gehiengo aurka balego eskaera gero egitea. Herri kontsultari buruzko berririk ez duela jakinarazi du.

Bigarrenik, Gipuzkoako alkate guztiei bat egiteko eskatzen zaiela dio. Kasu honetan ere logikoagoa iruditzen zaio ikustea lehenengo ea zenbat alkatek erantzuten duten.

Alkateak erantzun dio baietz, herri kontsulta egin ondoren egingo balitz eskaera hau indar gehiago izango lukeela, baina komunikabideetan esan eta esan ari direla dio



Usurbilgo Udala

maiatzerako lizitatu nahi direla obrak eta egutegia gainera datorkiela, nahiz eta gai hau beste patxada batekin kudeatu nahiko luketen.

Gaineratu du bere garaian Markel Olano Diputatu Nagusiari eskutitz bat bidali ziola eta ez duela erantzunik jaso. Gai honi buruz hitz egin nahiko lukeela dio eta gauzak beste modu batetara eraman, baina errealitatea dela dio egutegia inposatu egin zaiela.

Herritarrek erabakiko balute erraustegiaren alde daudela, Udalaren iniziatiba hau zilegitasunik gabe geratuko litzatekeela adierazi du, baina horrelako gaietan denborak oso inportanteak dira eta konturatu direla dio zerbait egitekotan orain dela momentua.

Jose Mari Iribarrek adierazi du Foru Aldundiak erabakia hartu ondoren eman nahi dituela esplikazioak eta ea hori ondo iruditzen zaion galdetu dio Fermin-i.

Fermin Orue-Echevarriak esan du Gipuzkoako Batzar Nagusiek hiru alditan hartu dutela erabakia, hiru legegintzaldi desberdinetan. Suposatzen duela dio esplikazioak obrak hasi aurretik emango dituztela.

Alkateak adierazi du behin kontratua ixten denean, kontratu horrek daukan izaera loteslea kontutan hartuta, obrak hasi baino lehenago ere gipuzkoarrok egon gintezkeela dio 35 urtetan horrek daukan kostua ordaintzera behartuta.

Bide batez jakinarazi du herri galdeketa egiteko baimen eskaera martxoaren 4ean bidali zela Madrilera eta erantzunaren zain daudela.


Alaitz Aizpuruak gainontzeko batzarkideak mediku taldearen txostena irakurtzera edo haiekin bilera bat egitera gonbidatu ditu.

Gaineratu du hau osasun arazo bat dela, baita ekonomikoa ere eta gainera beharrezkoa ez dena.

EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa Antolakuntza Batzordean eztabaidatua izan zen eta Udalbatzarrak gehiengoz onartu du. Honela dio testuak:

“Zubietan errauste-planta eraikitzeke egitasmoa aurrera eramateko ahaleginean ari da Gipuzkoako Foru Aldundia. Legealdi hau hasi zenetik, GFAk proiektuaren aldeko tresna politiko, administratibo, mediatiko, juridiko eta ekonomikoa martxan jarri ditu. Helburua argia da: errauste-plantaren proiektua atzeraezinezko egoera batera eramatea.

Proiektuak, ordea, kezka handia piztu du gipuzkoarren artean, eta, bereziki, usurbildarren artean.



Usurbilgo Udala

Erraustegiak osasunari eragiten dion kaltea da kezka nagusia. Xehetasunetan sartu gabe, azken urteotako hainbat azterketak eta hainbat mediku-txostenek adierazi dute erraustegiaren inguruan zenbait gaixotasun eta malformazio ugari dela.

Berriki, mediku-talde batek bere ikerketaren berri eman du, eta datu kezagarriak plazaratu dituzte. Aldi berean, Madrilgo erraustegi baten ondoko herritarren eskaera judiziala ere aintzat hartu dute epaitegiek, minbiziaren hazkundera eragin zezakeelakoan.

Osasunarekin batera, proiektuaren finantziazio-modua ere kezka-iturri da.

Oro har, proiektuak osasunari eta ingurumena kalte egingo diola ikusten da, hondakin-politikan atzera egingo dugula, eta gure bizi-ereduan kalte nabarmena eragingo duela.

Arrazoi horiengatik, Udalbatzarrak, gehiengoz, honakoa eskatzen du:

1. Errauste-plantaren proiektua bertan behera utz dadin eskatzea GFari, usurbildarrongan izango duen eragin kaltegarriarengatik.
2. Alkateari eskatzea Gipuzkoako alkate guztiei eskutitza bidal diezaiela, non usurbildarron kezka eta beldurra adieraziko zaien, eta usurbildarronganako konpromisozko eta elkartasunezko jarrera eskatuko zaien.”

Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisola eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.


Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.

## **11.- MOZIOA: USURBIL-LASARTE-ORIA-OSPITALEA LOTZEN DITUEN T2 ETA T6 AUTOBUSEN ZERBITZUAN MURRIZKETAK EZ EGITEAREN ALDE.**

Jone Urdanpilletak mozioari buruzko azalpenak eman ditu. Jakinik Astigarraga Ospitalea eta Unibertsitatearekin lotzen zituen linean murrizketa batzuk eman direla eta jakinik ere Foru Aldundia Lurraldebusekin bildu dela linea hauen inguruan hitz egiteko, honek kezka sortu duela adierazi du.

Jarraian, mozioak dituen bi puntuak irakurri ditu.

EH Bilduk aurkeztu eta Antolakuntza Batzordeak onartutako mozioa aztertu dute batzarkideek eta aho batez onartu dute. Honela dio testuak:



Usurbilgo Udala

“Azkeneko hilabeteetan ikusi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak murrizketak egin dituela Astigarraga-Ospitalea-Unibertsitatea-Donostia lotzen dituen A3 zerbitzuan. A3 zerbitzua kendu izan da, zehazki, desagertu. Horren ondorioz, Donostia inguruan dauden herrietan kezka bat sortu da Ospitalea eta herrien arteko zerbitzuen murrizketak direla eta; eta oro har, aipatutako kezka Gipuzkoa osora zabaldu da beste zerbitzuen kasuetan.

Gure kasuan, Usurbil-Lasarte-Oria-Ospitalea lotzen dituen T2 eta Hernani-Lasarte-Oria-Zubieta eta Usurbil lotzen dituen T6 zerbitzuei dagokion kezka, sare sozialetan, sindikatu eta herritarren artean zabaldu dena. Zehazki, ordutegietan proposatzen dira murrizketak, ospitaleko langileen sarrera-intereen ordutegietako zerbitzuak mantenduz eta besteak ezabatuz, herritar arruntarengan eragin eta kalte handiena sortzen duten ordutegietan, hain zuzen, adina dela, eritasuna dela edota bertan aparkatzeko dauden zailtasunak direla medio, inorentzat ez da gustukoa ospitalerako bidaia. Zentzu honetan, ezinbesteko zerbitzua betetzen du ospitaleko autobus lineak. Ahaztu gabe, bestaldetik, ordutegi murrizketa horrek suposatuko lukeen lanpostuen galera.

Aldundiak, Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Foru Diputatuak legealdiaren hasieratik esan du Garraio Publikoaren zerbitzuaren egokitzapenak bultzatuko zituela, zerbitzuak razionalizatuko dituela. Horiek, orain arte, zerbitzu murrizketak izan dira. Foru Aldundiaren jarrera ikusita egokia iruditzen zaigu Usurbilgo Udalak defendatu dezala herrian dauden garraio publikoen zerbitzuak, eta bereziki herriko kaxkoa, Aginaga, Santuene eta Zubietako auzoak, ospitalarekin lotzen dituen zerbitzuak.

Aurreko guztia kontutan hartuta eta garraio publikoak dakartzan mota guztietako onura ekonomiko, ingurumeneko eta bestelakoak azpimarratuz, Usurbilgo Udala Batzarrak ondoko akordioak hartzen ditu:

1.- Usurbilgo Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari onura soziala eta herritarren beharrak etekin ekonomikoaren gainetik jartzea eta ez dezala murrizketarik egin Lurraldebuseko T2 eta T6 zerbitzuetan.

2.- Usurbilgo Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari herritarren parte-hartzearekin diseinatutako zerbitzuen razionalizazioa egin behar izanez gero herritarren parte-hartzearekin egitea.”

Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.





Usurbilgo Udala

## **12.- MOZIOA: DIRU-SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZAREN (AGI) MURRIZKETA.**

Jone Urdanpilletak mozioari buruzko azalpenak eman ditu eta mozioak jasotzen dituen puntuak irakurri ditu.

Josune Urkolak adierazi du aurkako botoa emango dutela, zeren momentu honetan Foru Aldundiak proposatzen duena omen da AGI-a aldatzea eta ez erabat ezabatzea. Horren arrazoi nagusia da laguntza horrek zuen helburua ez duela bete, hau da, gizarteratzea. Hori horrela, Foru Aldundiaren proposamena dela dio Elkarrekin proiektua martxan jartzea Udalekin elkarlanean, horretarako 11 milioi bideratuz.

Jone Urdapilletak adierazi du Foru Aldundiak orain arte jakinarazitakoa soilik dela elkarrekin plan bat gauzatu nahi duela udalak inplikaturik, zehaztu gabe zenbat diru jarriko duten, zein helburu izango dituen eta egutegirik finkatu gabe. Gaineratu du bere ustez AGI-arekin Udalak ere inplikatu zirela eta Udalei galdeketa bat egin zitzaiela, nahiz eta horren emaitzaren berririk ez jaso. Jendarte bat estaldurarik gabe uzten dela esan du eta helburuak direla dio gizarte politikak unibertsalak izan behar dutela eta eskubide sozialak bermatu behar direla.

Josune Urkolak zehaztu du oraindik proiektua lantzen ari direla, eta bitartean laguntza behar dutenak laguntza berezi batzuekin erantzun egingo zaiela, ez zaie ezer gabe utziko. Bestalde, mozioan 1.400 familia aipatzen direla dio baina puntualizatu du aurretik dauden 1.400 familia gehi 1.325 eskaera gehiago direla.

Jone Urdanpilletak Usurbilgo datuen berri eman du. Diru-laguntza jaso zutenak 2013an 5 unitate, 2014an 6 unitate eta 2015ean 5 unitate izan zirela adierazi du. Ikusten dela dio "Efecto llamada" hori ez dela horrela. Erroldatze epe hori urtebetara jaistea eskatzen dutela dio.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du batzordean esan zuen moduan soluzio honek ezin duela izan herrialde bakarrarena, Eusko Jaurlaritzarena izan behar du, eta bertan hiru lurraldetako administrazioek aurkitu behar diotela soluzioa adierazi du.

Gaineratu du ikusi duela puntu bat gehiago sartzeko bere eskaera aintzat hartu dela, beraz, aldeko bozka emango duela.

Alkateak zehaztu du gizarte laguntzen gaian gauzak nola egiten diren oso inportantea dela. Diputazioko agintarien asmoa ez dakiela zein den benetan adierazi du, orain esan dutela dio plan alternatibo bat badagoela. Baina komunikabideen aurrera ateratzea esatera laguntza hau kendu egingo dela eta gainera aipatzea "efecto



Usurbilgo Udala

llamada"-rena, horrek sortzen duen alarma soziala eta kezka handia dela esan du. Desberdina izango zela dio hau kenduko dutela bai baina horren orde z zer datorren azaldu izan balute. Amaitu du esanez zer datorren ez jakiteak kezka sortzen diela.

EH Bilduk aurkeztu zuen mozioa Antolakuntza Batzordean eztabaidatu zen eta Udalbatzarrak gehiengoz onartu du, honela dio testuak:

“2011ko bukaeran, Eusko Jaurlaritzak gure Gizarte Zerbitzuen prestaziorik garrantzitsuenetako bat den Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE, RGI erdaraz) kobratu ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora igotzea erabaki zuen; zehazki, urtebete eskatetik hiru urte eskatzera pasatu zen.

Horrek ekarri zuen, automatikoki, pertsona asko gure babes sistematik kanpo geratu zirela.

Murrizketa sozial horri aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2012ko uztailean, Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL, AGI erdaraz) sortu zuen, non prestazioa jasotzeko eskatzen den erroldatze denbora urtebetekoa den; hain zuzen ere, Patxi Lopezen gobernuak murrizketa egin aurretik, DBE kobratzeko, urteetan eskatu izan den erroldatze denbora.

Beste modu batean esateko, DBE urteetan izan duen erroldatze denborara itzuliko balitz, DBL berez desagertu egingo litzateke, lehen zeukan estaldura soziala berreskuratuko lukeelako. Murrizketa murriztuko litzateke.

DBL izeneko prestazioak izaera unibertsala dauka, hau da, baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago, berdin da nongoak diren, DBEekin beti gertatu izan den bezalaxe.

Gogoratu behar da DBLa Gipuzkoan bizi diren 1.422 familia unitatek jasotzen dutela eta familia horietan 700 ume daudela, legez babestu beharrekoak.

Foru Gobernu berriak hasieratik jarri nahi izan du zalantzan DBLa eta horretarako argudio xenofoboak erabili izan ditu, erakartze efektoa (“efecto llamada” delakoa) aipatuaz, badakienean onuradun kopurua egonkortu egin dela. Foru Aldundia Marotoren bidetik abiatu da murrizketa sozialak egiten jarraitzeko eta bere jarduera justifikatzeko.

Hori dela eta, Usurbilgo Udalak honako mozio hau onartzen du:

1.- Usurbilgo Udalak bere babesa adierazten die, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile guztiei, inolako salbuespenik gabe; eta gogoratu nahi du ongizate soziala herritar eskubidea dela. Halaber, bere aitortza adierazi nahi die Gizarte Zerbitzuen langile guztiei, beraiek baitira eskubide horren bermea.



Usurbilgo Udala

2.- Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL-AGI) izeneko prestazioa erasotzen jarraitzeari utzi eta, bereziki, hori justifikatzeko argudio xenofoboak bere hizkeratik desagertarazteko.

3.- Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio DBL izeneko prestazioa bertan behera uzteko duen asmori uko egin diezaiola.

4.- Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio planteatu diezaiola Eusko Jaurlaritzari Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) jaso ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora hiru urteetatik urtebetera pasa dezala, hain zuzen ere, lehen zegoen bezala.

5.- Usurbilgo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mozio honen laugarren puntuan jasotakoa lehenbailehen burutu dezala.

6.-Usurbilgo Udalak, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, gaia aztertu eta hiru lurreetako oreka mantenduaz eta berdintasun irizpideak bermatuaz, hiru lurreetako Aldundi eta Udaletan garatuko den laguntzak adostea.”

Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.

### **13.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:00etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**